



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 7a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrek toki esparruan parte hartzeari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañain Auditorioa Fundazioarekin elkarriketak has ditzan, lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko xedearekin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleentzako eskara aintzat har dezan eta indarrean den araudia alda dezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).
- Erabakia, “terrorearen aurkako gerrako” legez kanpoko atxiloketei buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, martxoaren 8ko “Emakumearen Nazioarteko Eguna” dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakida” kontratua handitzea dakarten administrazio-egintzak ofizios berrikusteari buruz Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri edo izapideei eta hartutako erabakiei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egin (12. or.).

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuaren asmoari buruzkoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza Musikaren Hirian ezartzeari dagokionez, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer plan edo ekimen dituen abian Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiari dagokionez, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin behar duen zenbait epai judizial betetzeko; izan ere, haiek ezartzen dute hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga ordaintzeko eskaerak 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko uztailaren 16ra bitartean legezko estaldurarik ez zuela, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Liburutegi Zerbitzuaren administrazio-egiturari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeko proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (16. or.).
- Galdera, 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurarekin betetzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikas-tetxeen kalitate-irizpidea–, Ana Figueras Castellano andreak egina (20. or.).
- Galdera, minbizia duten pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2008ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordezkari Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko arauak (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“1. artikulua. Foru lege honen helburua.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, gutxienez urtebetez egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden herritar guztiei lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea segurtatuko diena, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako desegokitasun sozialen gainean esku hartzeko bideak ezarriko dira; izan ere berregituratze ekonomikoak eta berrikuntza teknologikoak gure gizartean, besteak beste, langabezia estrukturala, lan prekarietatea, pobreziaren hazkuntza eta hiritarren gero eta zati handiagoaren bazterketa sozialaren kronifikazioa sortu dituzte.”

Zioak: Nafarroa Bairentzat baliabide sorta bat dago nahitaez garatu beharra pertsona eta sektore behartsuenei -zaharrei, emakumeei, etorkinei, etab.- bizimodu duin bat emateko, horietako askok, izan ere, gizarte-bazterketaren muga egon baitira bere bizitzen uneren batean. Horrega-

tik, oinarrizko errentak bateratzea administrazio publikoak zuzenean kudeatutako gizarte-baliabideekin nahitaezko neurria da herritarren sektore batentzat.

Oinarrizko errentaren lehenbiziko helburua da, hain zuzen ere, pobreziarekin amaitzea, edo, gutxienez, haren alderdirik mingarrienekin, eta pertsona orori bizimodu duina izateko aukera ematea. Hau da, beste eskubide batzuk gauzatu ahal izateko hasierako baldintza da gizartea osatzen duen orori bizimodu duina izateko gutxienekoa ziurtatzea. Oinarrizko errenta, beraz, gizarte-eskubideen nahitaezko indargarria da.

Horiek horrela, uste dugu urtebete erroldatuta egotea nahikoa dela laguntza hori jasotzeko, laguntza horrek unibertsaltasunerako joera izan behar baitu, herritarren eskubidea baita. Asmoa da gizarte-eskubideak finkatzea eta areagotzea, bai eta, berdintasun-ikuspegia oinarri, gizarte-herritartasun osoa ere.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Proiektuko artikulua bakarraren 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Foru legearen 1. artikulua testu hau izanen du:

“Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, gutxienez urtebetez egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden 18 urtez goitiko herritar guztiei lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea segurtatuko diena, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten”

Zioak: Eskatutako egonaldia murriztea arartekoak eskatu du. Gaur egun bi urteko egonaldia eskatzen da, baina eskakizun hori urtebetera jaitziko balitz, beste herrialde batzuetatik etorritako herritarrak prestazio horren onuradun izaten ahalko lirateke. Horrela, hemezortzi urterekin, adinez nagusi, laguntzak eskuratzeko aukera egonen da, zenbait pertsona jadanik babesik gabe egon baitaitezke.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

Artikulu bakarrak hau proposatzen du:

“Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4. artikulua honelaxe geldituko da:

4. artikulua. Zenbatekoa.

1. Oinarrizko errentaren zenbatekoak ondoko dirusarrerak bermatuko ditu: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100 pertsona bakarrena, gehi lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 20 bi pertsona direnean, gehi lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 15 hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Inongo familiak ez du kobratuko oinarrizko errenta moduan lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 150etik gora hilabete bakoitzean.

2. Minusbaliotasunagatik oinarrizko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzetik ez duten pertsonen bermatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100era iritsi arte.”

Horren orde, hau da proposatzen dugun testua:

“Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4. artikulua honelaxe geldituko da:

4. artikulua. Zenbatekoak, epeak eta esleipenak.

1. Oinarrizko errentaren zenbatekoa zehazteko, erlazioatuko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoa –urtero ezarriko da–, dirusarrerak propioak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua; zehaztaper hori hurrengo eskalen

arabera eginen da, aipatzen den urte bakoitzera.

2008. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 85.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 105.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 115.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

6 pertsona edo gehiago lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen.

2009. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 90.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 110.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

6 pertsona edo gehiago lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen.

2010. URTETIK AURRERA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

5 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen.

Inongo familiak ez du kobratuko oinarrizko errenta moduan lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 150etik gora hilabete bakoitzean.

2. Lege honetan jasotako laguntzak sei hilabeterako esleituko dira; sei hilabeteko epe hori beste horrenbesteko epe batzuekin luza daiteke modu jarraituan, gehienez ere bi urte egin arte.

3. Laguntza-espeditente horiek Familia, Kirol, Gazteria, eta Gizarte Gaietako Departamentuko dagokion zuzendaritza nagusiak emaniko ebazpen baten bidez erabaki eta baimendu beharko dira.

4. Salbuespen gisa, behar bezala arrazoitutako espeditente bidez, gaintitu egin ahalko da aurreko idatz-zatian ezarritako laguntzaren gehieneko epea, baldin eta horretarako arrazoi pertsonal, sozial edo ekonomiko bereziak badaude.

5. Egoera berezi eta salbuespenezko horiek Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariaren foru aginduz erabaki eta baimendu beharko dira.

6. Eskabideak ebazteko eta/edo esleitzeko gehieneko epea izanen da gizarte zerbitzu orokorren zorroan erregelamenduz ezartzen dena, eta laguntzak prestazio ziurtatutzat hartuko dira.

7. Edonola ere, minusbaliotasunagatik oinarrizko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzetik ez duten pertsonen ere ziurtatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100era iritsi arte.”

Zioak: Asmoa da proposatu diren eta lortu nahi diren gizarte-helburuak gutxika lortzea, eta ziurtatzea Nafarroako aurrekontuek, hurrengo urteetan, babes ekonomikoa emanen dietela ekimen horiei; aldi berean, gizarte zerbitzuetako zorroa aplikatzen da, eta, hori garatuz, programarik egokienak diseinatzen dira jendea gizarteratzeko eta lanertzeko, bai eta bazterkeriaren aurka egiteko ere; izan ere, oinarrizko errenta ez da, eta ez du izan behar, berez, finalista, baizik eta trantsizio soziale-rako eta pertsonalerako gune bat.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu bat –2. artikulua– gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Oinarrizko errenta jasotzeko, honako baldintzak eskatuko dira:

a) Gizarteratzeko eta lanertzeko akordio bat sinatu beharko da, betiere baldin eta kasuan kasu gizarte-txostenean jasotzen bada errenta jaso dezakeen pertsona behin-behinean dagoela gizar-te-bazterketako egoeran eta ez duela oztopo gaindiezinik tratamendu espezializatuen bidez bere gizarteratze aktiboa lortzeko.

b) Frogatu beharko da Nafarroan jarraian bizi izana eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan, salbu eta eskatzailea gizarte-bazterketa egoeran dagoen familia-unitate bat bada eta adingabeak baditu bere kargu, kasu horretan salbuetsi egin baitaiteke baldintza hori eskatzetik.

2. Gizarteratzeko eta lanertzeko akordioaren edukia erregelamenduz garatuko da, eta lanaren bidezko gizarteratze aktiborako neurriak jaso beharko ditu bai eta gizarteratzeko eta lanertzeko taldeen esku-hartzearen beharra ere, lanertzeko akonpainamendu sozialean eta akordioaren ebaluazioan –nahitaezkoa da prestazioa berritzeko–.

3. Gizarteratzeko eta lanertzeko akordioa ez betetzeak esleitutako prestazio galtzea ekarriko du eta, behar izanez gero, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean aurreikusitako zehapenak ezartzea.”

Zioak: Oinarrizko errenta da gizarteratzea erraztu behar duen prestazio bat, eta lana da pertsonen gizarteratzea lortzeko neurririk eraginkorrena; lanak, izan ere, norbera gizarteratze prozesuan modu aktiboan inplikatzeko dakar eta inplikazio hori behar du, bizirauteko oinarrizko dirusarrera batzuk ziurtatzen ditu, gizarte-babeseko sistema publikoaren gastuei aurre egiten laguntzen du kotizazioaren bidez, zereginik gabe egoteari lotutako adikzioak eta jokabide patologikoak ekiditen ditu, etab. Oinarrizko errentak, horregatik, egoera zehatzak arintzera bideratuta egon behar du beti, onuradun izan daitekeenak laguntza egokiekin lana lor dezakeenean.

Bestalde, eta oinarrizko errentaren igoerak eragin dezakeen “dei efektua” ez dadin gerta, Nafarroan gutxienez ere denbora batez bizi izana eskatu behar da, larritasunezko kasu berezietan izan ezik eta pertsona horiek adingabeak dituztenean beren kargu.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Gizarte enpleguko programei atxikitako langileek, 35 orduko lanaldia eginda, soldata bat jasoko dute: indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130 eta % 140 eginen duen soldata garbia”

Zioak: Oinarrizko errentaren zenbatekoa aldatzeak gizarteratze eta laneratze programei atxikitako langileek jasotzen duten soldata igotzea ere ekarri behar du –gutxiegi jasotzen dutela iruditzen zaigu–, oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen antzeko egoerak bizi baitituzte.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak erregelamenduz laguntza berezi bat ezarriko du etxebizitzaren alokairua ordaindu ahal izateko, eta laguntza horiek eskatu ahalko dituzte oinarrizko errenta jasotzen dutenek bai eta beste pertsona batzuek ere, baldin eta dituzten dirusarrerak, oinarrizko errenta jasotzen dutenentzako arau berekin bateragarriak, ez badute lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 gaintzen. Laguntza horiek, gehienez ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 60 eta alokairuaren % 70 eginen dute, eta, halaber, 36 hilabeteko iraupena izanen dute gehienez ere”

Zioak: Egoera sozioekonomiko zailean dauden pertsonak, egoera horretatik irteteko, oinarrizko hiru laguntza behar dituzte: gizarte-soldata bat, etxebizitza eta lan aukerak. Foru administrazioak eta Estatuko administrazioek alokairuak ordaintzeko laguntzak eman behar badituzte errenta txikiak dituzten gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko, lehenetsuneko iruditzen zaigu egoera sozioekonomiko zailean behin-behineko dauden pertsona helduei ere laguntzak ematea.

Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2008ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko apirilaren 4ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Osasun Ministerioak eta Osasun kontseilariak akordio bat sinatu dute orain dela gutxi, 7tik 8 urtera bitarteko haurren aho-hortzetako osasuna kofinantzatze aldera. Akordio horren bidez, Nafarroako

roako Gobernuak 160.000 euroko dirulaguntza jasoko du, adin-tarte horretako gastuaren %50 alegia.

Nafarroan badugu programa bereki bat, aipatu akordioan sinatutako adin-tartea baino tarte zabalagoa hartzen duena. Halere, sinatutako akordioaren ondotik jasoko den diruak balio beharko luke dituzten gaitzak direla-eta aho-hortzetako osasuneko artatze prebentiboa behar duten pertsonen ere zabaltzeko aho-hortzetako laguntza.

Noizbait ekimenen bat aurkeztu dugu kontuan har zitezen adimeneko nahaste larriaren eta ezgaitasun psikikoaren ondoriozko gaixotasunen bat duten pertsonak. Halakoei ematen zaien medikazioak eta haien immunologia-sistema eskasak aho-hortzetako osasun arloko arazoak eragiten dituzte gaixo gehienengan.

Nafarroak aitzindaria izan behar du eta bikaintasuna erdietsi behar du laguntza soziosanitarioaren arloan. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aho-hortzetako osasun-programa bat sor dezan, adimen nahaste larriaren edo/eta ezgaitasun psikikoaren ondorioz gaixotasunen bat duten pertsonak artatze aldera, baldin eta, Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuak emandako ziurtagiriaren arabera, %65eko edo hortik goitiko minusbaliotasuna badute.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hurrek toki esparruan parte hartzeari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hurrek toki esparruan parte hartzeari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Toki entitateak, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak diren aldetik, behartuta daude Haurren Eskubideen Konbentzioa erabat gauzatu-ko duten ekintza politikoak abiatzera, aintzat hartuz haien eskubideak udal-erabakiak hartzerakoan eta bermatuz ezen hartzen diren neurri guztiak bat etorriko direla haurraren gorengo interesarekin.

Haurren eskubideez ari garelarik, gogora datozkigu apika garapen bidean diren herrialdeak, gure herrialdeetan eskubide horiek guztiak betezen direlako uste osoa baitugu, baina nahikoa da une batez hausnartzea konturatzeko hori horrela ez dela, ez behintzat 12. artikuluari dagokionez. Haurren parte-hartzea sustatzeak berekin ekarriko du gure hiriek etorkizun iraunkorragoa, gizatiarra eta guztiok kontuan hartuko gaituena izan dezaten.

Esku hartzeko garaia da, sentsibilizatzen jarraitzekoa, beharrezkoa baita, batetik, gai horiei buruzko informazioa bildu eta partekatzea eta, bestetik, hurrei buruzko politikak birbideratzea haurren eskubideak sustatu eta babeste aldera, eta beharrezkoa da orobat lanean jarraitzea, hurrengo haur-belaunaldiek eskubide osoko herritar-izaeran hobera egin dezaten, haien eskubide eta betebeharrak bete eta aitortuz.

Gaur egun asko dira haurren egoera hobetze aldera mundu mailan lanean ari diren komunitateak. Legebiltzar honetako Toki Administrazioiko Batzordeak eginiko lan bileran, Unicefeko ordezkariak "Haurren hiri lagunak" programa aurkeztu zuten, eta bertan egon ginen parlamentari guztiak bat etorri ginen gure toki erakundeek haurren parte-hartzea sustatzeko erronka onartzean. Halatan, halako gaiei buruzko ezjakintasuna dagoela onartu genuen; izan ere, Nafarroan ez dago herri bakar bat ere "Hiri Laguna" denik, nahiz eta horietako askotan ari diren egiten haurren ongizatea sustatzeko ekintzak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Toki Administrazioiko Departamentuaren bitartez

1. Hurrek toki esparruan parte hartzeari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan.

2. "Haurren Hiri Lagunak" eta antzeko programei buruzko publizitate eta informazio kanpaina bat egin dezan, toki entitateei zuzendua.

3. Laguntza teknikoa eman dezan, toki entitateek hurrei buruzko plan integralak prestatu ahal izan ditzaten.

4. Laguntza teknikoa eman dezan, ebaluatzeko zein den haurren egoera herrian, erabiliz, esaterako, Haurren Eskubideen Konbentzioaren aplikaziorako udal-adierazleak.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañain Auditorioa Fundazioarekin elkarrizketak has ditzan, lankidetza hitzarmen bat sinatzeko xedearekin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Barañain Auditorioa Fundazioarekin elkarrizketak has ditzan, lankidetza hitzarmen bat sinatzeko xedearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Barañain Auditorioa Fundazioak ez du, gaur egun, aterik zabalik Kultura eta Turismo Departamentuak laguntzak emate aldera taxuturik duen egituran, departamentuarekin harreman-bide bat irekitzeko, zeinaren bidez aurrekontuen kargura dirukopuru bat emanen zaion departamentuak egoki irizitako ekintza batzuk egitearen truke.

Fundazio bat sortu izanak ez dio bide ematen fundazioari "Artea eta Kultura" deialdira aurkezteko, udalei soilik zuzendutakoa baita.

"Entitate artistiko eta kulturelekiko hitzarmenak" izeneko deialdia, berriz, saturatuta dago; izan ere, entitate asko eta askotarikoak dira deialdi horretan parte hartzen dutenak, eta entitate horiek, neurri handi batean, halabeharrezkoa dute aipatu deialdia. Azken urteotan gutxi gorabehera entitate berberei eman izan zaie dirulaguntza.

Barañain Auditorioa Fundazioak, nazio mailan hainbat sari eta abal jaso baititu, departamentuaren baliabideak osatu eta optimizatu litzake, ia bost urteko ibilbidean erakutsi duenez gero. Hartara, aipatu entitatearen eta Kultura Departamentuaren arteko hitzarmen bat oso onuragarria izanen litzateke departamentuarentzat, Auditorio Barañain Fundazioarentzat beharrezkoa izateaz gain, departamentuak lanak eta programak liberatu ahal izanen litzukeelako, eta beste entitate bati eman.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean elkarrizketak has ditzan Barañain Auditorioa Fundazioarekin, lankidetza hitzarmen edo akordio berezi bat sinatze aldera, Nafarroarentzat baliarazteko Barañaingo udalerrian dagoen gunen eszenikoa, egoki irizitako programa eta lanak egin ditzan aginduz.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat har dezan eta indarrean den araudia alda dezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat har dezan eta indarrean den araudia alda dezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Baliteke baliabideak arrazionalizatzeko helburarekin onetsi izana Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia kentzeko foru agindua. Foru agindu horren bidez, azterketen deialdia egiteko beharrezkoak diren baliabideak mugatu nahi dira.

Era horretan, arriskuan jartzen da ikasleen ikaskuntza-prozesuaren arrakasta. Iraileko azterketen deialdiaren ohiko sistemak erraztu egiten du beharrezkoak diren ziurtagiriak lortzea.

Gogorarazi beharra dago ezen, egungo hezkuntza sistema aplikatuta, beste autonomia erkidego batzuetan ohikoa dela urtean bi deialdi egitea, era arrazionalago batez interpretatuz 1629/2006 Errege Dekretuko 4. artikuluan xedatutakoa (errege dekretu horren bidez, araubide bereziko hizkuntzen ikasketen curriculumaren oinarriko alderdiak ezarri ziren).

Legeko 4. artikuluko 3. idatz-zatiak honako hau dio: "Hezkuntza-administrazioek urtean deialdi bat antolatuko dute gutxienez ere, tarteko mailari eta maila aurreratuari dagozkien ziurtagiriak lortzeko."

Foru Komunitatean ez denez azterketen deialdi bikoitza egiten urtean -hartara, ezarritako gutxienekoa baino ez da betetzen-, ikasle nafarrek desabantaila dute gainontzeko hizkuntza eskoletako ikasleen ondoan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat hartu eta oraingo prestakuntza modua alda dezan, urtean gutxienez ere bi deialdi egiteko eta iraileko deialdia berrezartzeko, Foru Komunitate honetan irakasten diren hizkuntzetako maila bakoitzeko ziurtagiria lortzeko probari dagokionez.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Erabakia, “terrorearen aurkako gerrako” legez kanpoko atxiloketei buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2008ko martxoaren 3an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2008ko otsailaren 27an hartutako erabakia, zeinaren bidez igorri baitzuen “terrorearen aurkako gerrako” legez kanpoko atxiloketei buruzko erabaki proposamena, ERA-BAKI DA:

Aipatu proposamena onestea. Hona testua hitzez hitz:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Estatu Batuetako Kongresuak terrorearen aurkako gerran legez kanpoko atxiloketekin amaitzeko legeak aldarrika ditzan mundu osoko parlamentariak egitiko eskaerarekin, eta bat dator NBEren Giza Eskubideen esparruarekin, Estatu Batuek “terrorearen aurkako gerran” atxiloketak egiteko darabilzaten politikak eta praktikak giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera izan daitezzen, helburu hori lortze bidean lehen urratsa izaki Guantanamoko atxiloketa-zentroa ixtea.”

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, martxoaren 8ko “Emakumearen Nazioarteko Eguna” dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du Espainiako gobernuarekin lankidetzan instituzionalen jarduteko, nor bere eskumenen esparrutik, Emakumeen eta Gizonen arteko Egiatzko Berdintasunerako Legean jasotako neurri guztiak garatu eta aplikatzeko langintzan, emakumeen bizi-baldintzak hobetze eta bi sexuen arteko egiatzko berdintasuneranzko aurrerapausoak emate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du behar-beharrezkoa dela martxoaren 7ko 2/2003 Foru Legea betetzea. Horretarako, abian jarri behar dira emakumeei laguntza integrala emateko zentroak eta harrera etxeak.

3. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du laneko ezegonkortasuna, langabezia eta behin-behinekotasuna desagerrarazteko politikak bultzatzeko -batez ere emakumezkoen enpleguari eragiten baitiote- eta ordainsarrietan oraindik ere ematen diren aldeak eragozteko, nahiz eta bi esparru horietan aurrerapausoak eman diren. Hartara, garrantzitsua da enpresei babes publikoa ematea berdintasun planak presta ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela emakume etorkinak gizarteratu eta lane-ratzeko plan bat egitea eta azpimarratu behar dela gizon eta emakumeek ardurak bera dutela pertsonak zaindu eta etxeko lanak egitean.

5. Foru Parlamentuak orobat uste du ezen botere publikoek aldi baterako laguntza zerbitzuak sortzen lagundu behar dutela, haurren zaintzari aurre egite aldera egoera berariazkoetan, eskolako oporretan edo asialdiko jardueretan esate baterako, bai eta estatistikak egin behar direla ere, emakumeek egiten duten lan ordaindu gabea ikusarazte aldera, lan horrek foru komunitatearen ekonomiarako duen garrantzia nabarmenduz.

6. Azkenik Nafarroako Parlamentuak genero-indarkeriari buruz ohartarazteko eta haren aurka sentsibilizatzeko kanpainen aldeko jarrera hartzen du. Kanpaina horiek gizarteko sektore guztien esku-hartzea sustatu behar dute, hezkuntza-komunitatearena eta, batez ere, hedabideena, iritzi-sortzaile nagusi diren aldetik laguntza eraginkorra eman ahal baitute emakumeen aurkako indarkeria legitiimatzen duten kultur estereotipoak auzitan jartzeko.”

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakida” kontratua handitzea dakarten administrazio-egintzak ofizioz berrikusteari buruz Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri edo izapideei eta hartutako erabakiei buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakida” kontratua handitzea dakarten administrazio-egintzak ofizioz berrikusteari buruz Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri edo izapideei eta hartutako erabakiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu

du, A-12 autobia kontratuaren klausulak aldatzea dakarten administrazio-egintzak ofizioz berrikusteari buruz Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioak

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat onetsi zuen iragan otsailaren 7an. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen “Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako” kontratuan 35 eta 19,9 milioi euroko ingoera dakarten egintza batzuk berrikus ditzan.

Galderaren testua

Zer jarduketa, izapide edo erabaki hartu edo gauzatu ditu edo gauzatu nahi ditu etorkizunean Nafarroako Gobernuak, Legebiltzarrak iragan otsailaren 7ko Ekonomia eta Ogasun Batzordean aipatu administrazio-egintzak ofizioz berrikustea aldera hartutako erabakia betetzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuaren asmoari buruzkoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza Musikaren Hirian ezartzeari dagokionez.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea–Kultura eta Turismo Departamentuaren asmoari buruzkoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza Musikaren Hirian ezartzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turis-

mo kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Hezkuntza kontseilari Pérez Nieves jaunak agerraldia egin zuen Hezkuntza Batzordean 2008ko otsailaren 13an, Musikaren Hiria deiturikoren eraikuntzari buruzko aurreikuspenen berri emateko, Foru Gobernuak hainbatetan aurkeztu baitu proiektu hori.

Kontseilariak zehaztasun gutxi eman zituen, eta argi gelditu zen ezen hiri horretako hirugarren kuboak, etorkizunean Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza izanen dena hain zuzen, Kultura eta Turismo Departamentuaren mendean egonen dela.

Ardura banaketa hori ikusita, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondo-koa jakin nahi du:

Galderaren testua

Zer asmo du Kultura eta Turismo Departamentuak Musikaren Hiriaren alde horri, alegia Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitzari dagokionez?

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer plan edo ekimen dituen abian Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiari dagokionez.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer plan edo ekimen dituen abian Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrássek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Kultura eta Turismo Departamentuak hartutako zenbait ekimen, programa jakin batzuetan aldaketa kualitatiboa dakartenak, jaso dituzte egunotan

hedabideek. Horietako bat, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiari buruzkoa, antza denez zuzendari berria izendatu baitute.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak zer plan edo ekimen ditu abian Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiari dagokionez?

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin behar duen zenbait epai judizial betetzeko; izan ere, haiek ezartzen dute hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga ordaintzeko eskaerak 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko uztailaren 16ra bitartean legezko estaldurarik ez zuela.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin behar duen zenbait epai judizial betetzeko; izan ere, haiek ezartzen dute hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga ordaintzeko eskaerak 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko uztailaren 16ra bitartean legezko estaldurarik ez zuela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánnek ondoko galdera egin du, hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko uztailaren 16ra bitarte behar ez bezala aplikatu izanari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioak

Alderdi Popularraren Gobernuak proposatuta, Zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriek buruzko 24/2001 Legea onetsi zen. Haren bidez, zeharkako zerga berri bat -hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga- ezarri zen 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, eta horrek erregaien prezioaren igoera ekarri zuen, eta kalte egin zion garraio arloko lanbidedunen eta herritar guztien lanaren errentagarritasunari.

Alderdi Popularrak asmatutako zeharkako zerga berri hori zalantza eta nahasketaz beterik aplikatu da Nafarroan, UPN-PPk gidatzen duten Nafarroako Gobernuaren jardunak eraginda. Halatan, ez da ausartzen jendaurrean aurka egiten Estatuaren erabaki kaltegarri horri, garraio arloko lanbidedunei eta erregaiak oro har kontsumitzen dituztenei zerga berri bat ezartzen dien horri, baina ez da ausartzen horri babes ematen ere, eta zerga hori erregai-banatzaille nafarrei ordainaraztearen alde egin du.

Auzitegiek Foru Gobernuaren jarrera desegoki hori gaitzetsi dute zenbait epairen bidez, ezarri baitute Foru Ogasunak ez zuela eskubiderik hidrokarburoen zerga berri hori biltzeko 2002ko urtarrilatik 2003ko uztailera bitarte, ez zeukalako beharrezkoa zuen legezko estaldurarik.

Galderaren testua

Berriki eman diren zenbait epaik ezartzen dute hidrokarbuero jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga ordaintzea eskatzeak, eta zerga banatzaile eta bezeroei zabaltzeak, 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko uztailaren 16ra bitartean ez

zuela legezko estaldurarik. Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa du epai judizial horiek betetzeko eta, horrenbestez, epe horretan haiek pairatu zuten igoera bidegabea konpentsatzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Liburutegi Zerbitzuaren administrazio-egiturari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Liburutegi Zerbitzuaren administrazio-egiturari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean erantzun dezan:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegi Zerbitzua.

Kultura eta Turismo kontseilariaren ustez, Liburutegi Zerbitzuaren administrazio-egitura behar adinakoa al da Nafarroako liburutegi sistemaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeke proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeke proiekturik esleitu zen, gaur egungo proiektua esleitu aurretik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilari Kutz andreak idatziz erantzun dezan:

1.- Egia al da Sarrigurengo osasun etxea eraikitzeke proiektu bat egon zela, gaur egungo proiektua esleitu aurretik? Egia baldin bada, horren kopia jaso nahi dugu.

2.- Egia al da proiektu hura esleitu zela? Esleitu baldin bazen, esleipenaren kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 1993 geroztik Nafarroako ibaietako arroetan eginiko amuarrain arruntaren –arrainkumeak eta arrabak– birpopulatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak muturreko neurri bat hartu du, aurrekaririk gabea, amuarraina arrantzatzea debekatu baitu Kantauriko isurialdeko ibaietako kilometro asko eta askotan, besteak beste Bidasoako arroan.

Eskualde horretako arrantza-zaleak atsekabeta daude hartu den erabaki larri hori dela eta; izan ere, beldur dira epe luze batean ezin izanen dutela praktikatu gogokoen duten zaletasuna. Zenbait kalteturekin izandako elkarrizketen eta emandako informazioen arabera, orobat uste dute

ezen amuarrain-eskasiaren arazoa hainbat faktoreri zor zaiola, eta horietako bat da -eta ez garrantzi gutxien duena- azken urteotan ez dela arrain-populazioa indartu. Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

1.- 1993tik hona Bidasoako arroan eginiko amuarrain arruntaren -arrainkumeen eta arraben- birpopulatze kopurua.

2.- 1993tik hona Bidasoa arroan eginiko amuarrain arruntaren -arrainkumeen eta arraben- birpopulatze kopuru osoaren xehakatzeari, urtez urte, zehaztuta zein herritan eta zein ibai-tartetan egin ziren.

3.- Informazio honen xede diren birpopulatze horietan erabilitako amuarrain arruntaren -arrainkumeen eta arraben- jatorria.

4.- Baldin eta Oronoz-Mugairiko San Francisco Javier arrain-haztegian hazitako amuarrain arruntak -arrainkumeak eta arrabak- erabili badira Nafarroan birpopulatzeak egiteko, adierazi erabilitako kopurua, zein herritan eta zein ibai-tartetan erabili ziren, 1993tik hona, urtez urte.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa
Imaz

Galdera, jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer departamentuk sustatu duen Nafarroako nazioarteko plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Nafarroako nazioarteko plana

Zer departamentuk bultzatu du plana? Administrazioa zer zerbitzuek egin dute? Ba al du Nafarroako Gobernuak plana Legebiltzarrean aurkezteko asmorik?

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Rozalejo Jauregiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Araudian xedatutakoaren arabera, Rozalejo jauregia dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Rozalejo Jauregiarekin?

Zein da eraikinaren egoera kaxkarra saihesteko duen egitasmoa?

Zer egingen du erabilera publikoa emateko?

Iruñean, 2008k otsailaren 26a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeke Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentua prest al dagoen berriro aztertzeke Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Hala Iruñeko nola Tuterako hizkuntza eskola ofizialeko ikasleek adierazi dute ez datozela bat iraileko azterketen deialdia kentzen duen foru aginduarekin, bidegabera iruditzen baitaie aurkeztu eta gogoko emaitza ateratzeko aukera hori ukatzea. Hori dela-eta aurkeztu dugu ondoko

Galdera

Hezkuntza Departamentua prest al dago sortu den egora berriro aztertzeke eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko iraileko azterketen deialdia berrezartzeke?

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurrarekin betetze-ari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Uxueko hirigunetik gertu dauden lursailak Uxueko errepidea eraikitzean egiten diren zelaitze-lanetatik datorren lurrarekin betetze-ari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Uxueko errepidea eraikitzean egiten ari diren lur-erazketetan lur-kopuru handia mugitzen ari dira, herritik kilometro batera biltzen ari dena. Aurreikusitakoaren arabera, lur horrek hirurehun metro luze eta ehun metro zabaleko eremua hartuko du, eta ia hogeita hamar metro altuera hartuko du lur gehien pilatuko den lekuan. Lekuz aldatzen ari den material horren parte bat ongi asko erabil daiteke herriko aldirietan parke eta aparkalekuetarako lursailak nibelatu eta zelaitzeko, batez ere orain, bisitari kopurua igoko baita, errepidea eraiki eta eliza-gotorlekua zaharberritu ostean.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Frontoi inguruko eremua, Pastas Urrutiaren inguruko eremua, San Isidro kalea, Castillazo, San Migeleko eremua eta Uxueko hirigune inguruko beste eremu batzuk baliagarriak izan daitezke egungo defizita arintzeko eta herriko biztanleei emateko luzaz eskatu dituzten dotazioak, esaterako bizilagunentzako parkeak eta aparkalekuak, bai egoiliarrentzat bai Nafarroako kultura historiko eta artistikoaren gune nagusi horren bisitari gero eta ugariagoentzat. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aukera hori aztertu eta baliatzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikastetxeen kalitate-irizpidea–.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa –arartekoak eginiko gomendioak, zaintzak, egutegiak, ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikastetxeen kalitate-irizpidea–.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzeko?

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik, kontseilariaren bitartez, arartekoaren gomendioak balizko dekretu berri batean jasotzeko?

Hezkuntza Departamentuaren eta kontseilariaren ustez, banan-banan kontrolatu behar al dira Otik 3 urtera bitarteko haurrentzat irekita dauden ikastetxeak?

Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeen ordutegia eta egutegia arautzeko irizpideak ezarri behar dira?

Beharrezkoa eta lehentasunezkoa al da hitzarmenak ezartzea toki entitateekin, finantzatu eta kalitatezko zerbitzua emateko ezartzen diren irizpideak homogeneizatzeko aldera?

Egoki al da onartze-prozedurak ezartzea sare publikoko ikastetxe guztietarako?

Hezkuntza sare bikoitzak -batetik "hezkuntza sarea" eta bestetik "hezkuntzaz landako sarea"- kontrolik eza dakar lehen hiru urteetan eskolatzeko baldintzei dagokienez. Departamentua eta kontseilaria ados al daude horrekin guztiarekin?

Iruñean, 2008ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, minbizia duten pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, minbizia duten pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrari buruzkoa, Iruñean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Ondokoa jakin nahi dut Tuterako aldeko onkologiko zenbait gaixori buruz:

1.- Minbizia izatearen susmo oinarrituko pertsonen diagnosi eta tratamendurako zirkuitu azkarrak Iruñean bakarrik funtzionatzen du ala Nafarroako beste eremu batzuetara ere zabalduta da? Zer informazio mota jaso dute eremu horietako profesionalak?

2. Zergatik bideratzen dira kasu batzuk Nafarroako Unibertsitate-Klinikara? Zenbat kasu bideratzen ziren Klinikara onkologia zerbitzua abian jarri aurretik eta zenbat bideratzen dira egun?

3. Tuterako Onkologia Zerbitzua Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuan sartuta al dago?

4.- Osasun zerbitzuek arlo horretan izandako akatsek zerikusirik al dute Tuterako Ospitalean neumologiako espezialistak ez egotearekin?

Iruñean, 2008ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2008ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordezkari Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 3an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak baimena eskatu dio Nafarroako Parlamentuari Balbino Bados Artiz jauna ordeztuko duen kontseiluko kidea izenda dezan; izan ere, azken horrek, Parlamentuak hautatu baitzuen, kargua utzi du Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 23.8 artikulua xedaturiko kargualdia bukatu ondoren.

Aipatu foru legeko 23.1.a) artikulua araber, betiere martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legean erabiltako testuaren arabera, "berritze partzialetan foru parlamentari bakoitzak gehienez ere izangai baten aldeko botoa eman ahal izanen du". Arau hori garatuz eta 2006ko martxoaren 20an onetsitako erabakiei jarraituz, bidezkoa da erabaki honek xede duen ordezkari prozedurari buruzko arau batzuk onestea.

Horrenbestez, legegari nagusiaren txostena ikusita eta Erregelamenduko 37.1.9.a artikuluari jarraituz, honakoa ERABAKI DUGU:

Lehena. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2008ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordezkari Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko ondoko arauak onestea:

1. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bat aurkeztu ahal du; betiere, aipatu 18/2001 Foru Legeko 23.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan beharko dute.

2. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek, eta, idatzi

horretan, proposatutako hautagaien onarpena jaso beharko da. Proposatutako hautagaien 18/2001 Foru Legeko 25. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik ez dutela erabaki ahal izateko, proposamen-idatziei aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitorpena edo egiaztagiria erantsiko zaie, hautagaien egina.

3. Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea hurrengo martxoaren 14ko 12:00etan bukatuko da.

4. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaien baldintzak betetzen ote dituzten erabakitzeari ekingo dio Mahaiak, eta ondoren, hala bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

5. Hautagaiak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak jarritako egunean, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko lan bilera batean agertuko dira, parlamentariak haien merezimenduak ezagutu ditzaten.

6. Kontseiluko kidea Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko da.

7. Txartelen bidez eginen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakar baten izena jarri ahal du txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago, boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebaziko da. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurren bozketak eginen dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegin arte.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	